



ARRANKUDIAGAKO ELIZALDE PRESTUAREN  
UDALA  
AYUNTAMIENTO DE LA N. ANTEIGLESIA  
DE  
ARRANKUDIAGA  
(BIZKAIA)

**2020KO MAIATZAREN 12AN, ARRANKUDIAGAKO ELIZATEKO UDALAK  
EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.**

---

**BERTARATUTAKO  
ZINEGOTZIAK**

=====

**ALKATEA**

Jesus Maria "Txutxi" Ariznabarreta Zubero jauna. (EH Bildu)

**ALKATE ORDEAK**

Lehenengo alkate ordea, Itziar Duoandikoetxea Gonzalez anderea.(EH Bildu)  
Bigarren alkate ordea, Maider Biritxinaga Malaina anderea. (EH Bildu)

**ZINEGOTZIAK**

Mikel Abrisketa Izquierdo jauna. (EH Bildu)  
Josu Beaskoetxea Azkueta jauna. (EAJ/PNV)  
Izaskun Barrenetxea Izagirre anderea.(EAJ/PNV)  
Ane Miren Esparza Montalban anderea.(EAJ/PNV)

**IDAZKARI KONTU-HARTZAILEA**

Daniel Maeztu Perez jauna.

=====

2020ko maiatzaren 12an, 8:00-ak izanik, hasiera ematen zaio ohiko osoko bilkurari.

**1. OTSAILAREN 27AN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA ONARTZEA, HORRELA BADAGOKIO.**

**Aprobación si procede del acta de la sesión ordinaria celebrada el 27 de febrero de 2020.**

Aho batez onartzen da otsailaren 27an egindako osoko bilkuraren akta. Era berean, nahiz eta gai ordenean ez agertu, martxoaren 11ean egindako ez ohiko osoko bilkuraren akta ere, aho batez onartzen da.

**2. ARRANKUDIAGA ETA ZOLLOKO UDALA, BESTE UDALERRI BATZUEKIN BATERA MANKOMUNITATE BAT, BERE ESKUMENEN ZERBITZUAK ERA BATERATUAN ESKAINTZEKO, SORTZEKO BORONDATEA ADIERAZTEA ETA PROZEDURA MARTXAN JARTZEA ONARTZEA.**

**Manifiestar la voluntad del ayuntamiento de Arrankudiaga y Zollo de crear una Mancomunidad junto con otros municipios, para la prestación conjunta de los servicios de su competencia y aprobar la puesta en marcha del proceso para su creación.**

**3. MANKOMUNITATEAREN ESTATUTOAK EGITEKO ERATU BEHAR DEN BATZAR-IDAZLEKO UDALAREN ORDEZKARI GISA, ORDEZKARIA IZENDATZEA.**

**Nombrar representante del Ayuntamiento en la Comisión redactora que haya de constituirse para la elaboración de los Estatutos de la Mancomunidad.**

Osoko bilkuraren 2 eta 3 puntuak batera eztabaidatzen dira. Horretarako, espedientean dagoen idazkariaren txostenean oinarritutako, hurrengo ebazpen proposamen aurkezten du alkate jaunak:

**AKORDIO PROPOSAMENA**

**PROPUESTA DE ACUERDO**

Udal honetako Idazkariak igorritako Txostenari jarraiki, Arrankudiaga eta Zolloko Udaleko Osoko Bilkurara aurkezten da hurrengo AKORDIOA:

1.- Oinarri Juridikoak:

TEOLEko 44. artikulua hurrengo dio:

*1. Udalerriei, beren eskumenero zenbait obra eta zerbitzu elkarrekin burutzeko, beste udalerrri batzuekin mankomunitateetan elkartzeko eskubidea aitortzen zaie.*

*2. Mankomunitateek nortasun eta gaitasun juridikoak dituzte beren helburu zehatzak betetzeko, eta beren estatutuen bidez*

De conformidad con lo establecido en Informe emitido por la Secretaría de este Ayuntamiento, se somete al pleno ordinario del Ayuntamiento de Arrankudiaga y Zollo, el presente ACUERDO:

1.- Fundamentos jurídicos:

El artículo 44 de la LBRL establece:

*1. Se reconoce a los municipios el derecho a asociarse con otros en mancomunidades para la ejecución en común de obras y servicios determinados de su competencia.*

*arautzen dira. Estatutueta arautu behar dira erakundearen lurralde-eremua, xedea eta eskumena, gobernu-organoak eta baliabideak, iraunaldia eta beren jardunerako beharrezko diren beste arlo guztiak.*

*Nolanahi ere, gobernu-organoen ordezkaritza mankomunitatean bildutako udalen adierazgarri izan behar da.*

*3. Mankomunitateen estatutuak onartzeko prozedura autonomia-erkidegoetako legedian zehaztuko da, eta, nolanahi ere, arau hauetara egokitu behar da:*

*a) Mankomunitatearen sustatzaile diren udalerrri guztietako zinegotziei dagokie estatutuak egitea, batzarrean bilduta.*

*b) Horretan interesa duten probintzietako diputazioek estatutuen proiektuari buruzko txostena emango dute.*

*c) Udal guztietako osoko bilkurek onartuko dituzte estatutuak.*

*4. Pareko prozedura beteko da mankomunitateak aldatu zein ezabatzeko.*

*5. Autonomia-erkidego bat baino gehiagoko udalerrriak bil daitezke mankomunitate batean, baldin eta autonomia-erkidego horietako araudiek hala egitea onartzen badute.*

Helburu honekin, 3/1993 Foru Araueko 10. artikulua hurrengo aurreikusitako du:

*1. Mankomunitatea eratzeko ekimena udal interesatuei dagokie, berau mankomunitatea sortzeko nahia expreski adieraziz*

3

*2. Las mancomunidades tienen personalidad y capacidad jurídicas para el cumplimiento de sus fines específicos y se rigen por sus Estatutos propios. Los Estatutos han de regular el ámbito territorial de la entidad, su objeto y competencia, órganos de gobierno y recursos, plazo de duración y cuantos otros extremos sean necesarios para su funcionamiento.*

*En todo caso, los órganos de gobierno serán representativos de los ayuntamientos mancomunados.*

*3. El procedimiento de aprobación de los estatutos de las mancomunidades se determinará por la legislación de las comunidades autónomas y se ajustará, en todo caso, a las siguientes reglas:*

*a) La elaboración corresponderá a los concejales de la totalidad de los municipios promotores de la mancomunidad, constituidos en asamblea.*

*b) La Diputación o Diputaciones provinciales interesadas emitirán informe sobre el proyecto de estatutos.*

*c) Los Plenos de todos los ayuntamientos aprueban los estatutos.*

*4. Se seguirá un procedimiento similar para la modificación o supresión de mancomunidades.*

*5. Podrán integrarse en la misma mancomunidad municipios pertenecientes a distintas comunidades autónomas, siempre que lo permitan las normativas de las comunidades autónomas afectadas.*

El artículo 10 de la Norma Foral 3/1993, de Bizkaia, determina a tal efecto lo siguiente:

*Korporazio bakoitzeko kideen legezko kopurua-ren gehiengo osoak hartutako erabakiz burutuko dela.*

*2. Aurreko lerroaldiak aipatzen duen erabakiak, bestalde, Korporazio bakoitzak Batzorde-Idazlarian izango duen kidearen izendapena eduki beharko du. Batzorde hori izango da Estatutuen Proiektua egiteko eta Mankomunitatearen eraketa-prozedurak dituen fase bakoitza burutzeko ardura hartuko duen organoa.*

*3. Batzordeak bertako kideen artean Batzordeburua auke-ratuko du, idazkari lanean batzarraldiak egiten direneko Udalerriko idazkariak jardungo duela.*

*1. La iniciativa para la constitución de la Mancomunidad corresponderá a los Ayuntamientos interesados, mediante acuerdo adoptado por mayoría absoluta del número legal de miembros de cada Corporación en el que se expresará su voluntad de mancomunarse.*

*2. El acuerdo al que se hace referencia en el apartado anterior deberá contener, además, la designación de un miembro de cada Corporación en la Comisión Redactora. Dicha Comisión será el órgano encargado de la elaboración del Proyecto de Estatutos, y de impulsar cada una de las fases de las que consta el procedimiento de constitución de la Mancomunidad.*

*3. La Comisión elegirá entre sus miembros al Presidente, actuando como Secretario el del Municipio en el que se celebren las sesiones.*

2.- Hurrengo udalak osatuta, Mankomunitate bat eratzekeo prozesua martxan jartzea adosten da:

. Arakaldo

- . Arrakundiaga-Zollo
- . Arrigorriaga
- . Etxebarri
- . Urduña
- . Orozko
- . Ugao-Miraballes
- . Zaratamo
- . Zeberio

2.- Que, se acuerda iniciar el proceso de constitución de una Mancomunidad constituida por los Ayuntamientos siguientes:

. Arakaldo

• Arrakundiaga-Zollo

. Arrigorriaga

1. Etxebarri

. Orduña

. Orozko

. Ugao-Miravalles

. Zarátamo

. Zeberio

3.- Ondorioz, akordio honekin, Arrankudiaga

eta Zolloko udalak, aipatutako udal guztiekin mankomunitate bat sortzeko borondatea adierazten du.

4.- Martxoaren 30eko 3/1995 Foru Arauari jarraiki, Mankomunitatearen Estatutuen prozedurari ekiteko akordio hau, Udal bakoitzeko Osoko Bilkuran gehiengo osoz onartu behar da.

5.- Era berean, Osoko Bilkurak eta, era berean, gehiengo osoz, Batzar-Idazleko Udalaren ordezkari gisa, Jesus Maria Ariznabarreta Alkatea izendatzea erabaki da.

3.- Por consiguiente, mediante el presente acuerdo se manifiesta la voluntad del ayuntamiento de Arrankudiaga y Zollo de mancomunarse con todos y cada uno de los ayuntamientos citados.

4.- Que, de conformidad con lo establecido en el artículo 10 de la Norma Foral 3/1995, de 30 de marzo, reguladora de las entidades de ámbito supramunicipal de Bizkaia el presente acuerdo de iniciación del procedimiento de aprobación de los Estatutos de la Mancomunidad debe de adoptarse por mayoría absoluta del pleno.

5.- Que, asimismo, por igual órgano y mayoría, se nombra como representación del Ayuntamiento en la Comisión Redactora del Proyecto de Estatutos de la Mancomunidad al Alcalde Jesus Maria Ariznabarreta.

Jesus Maria Ariznabarreta alkate jaunak (EH Bildu) azaltzen du erabaki honen nondik norakoak. Era horretan aipatzen du, gaur egun, hainbat udalek udaltalde 21 eskualdeko enpresa publikoarekin bitartez kontratatzen dutela hondakinen kudeaketa. Baina sektore publikoaren kontratuen legea dela eta, kontratazio horrek ez duela babes legalik, bereziki enpresa publiko hori udal bati atxikitu behar zaiolako eta horrek arazoak sortzen dituela eskualdeko udalen artean. Beraz, egoera hori gainditzeko eta hondakinak eta beste zerbitzu publiko batzuk, alegia, euskara, berdintasuna, zerbitzu sozialak eta abar, mankomunitate baten bitartez era bateratu batean eskaini ahal izango direla.

Jose Beaskoetxea jaunak (EAJ-PNV), galdetzen du, zer nahi duen esan mankomunitateak pertsonalitate juridiko propioa duela.

Udal idazkariak erantzuten dio, udalek bere gain (mankomunitatea) uzten dituzten zerbitzuetan, mankomunitateak tokiko erakunde gisa aritu ahal izango dela. Erantzukizun juridiko guztiarekin.

Bertaratutakoek aho batez onartzen dute ebazpena.

#### 4. ARRANKUDIAGAKO UDALA TOKIKO ERAKUNDEAREN 2019 EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN KONTU EMATEA.

Dación de cuentas de la liquidación del ejercicio presupuestario del 2019 de la entidad local Ayuntamiento de Arrankudiaga.

Udal idazkari kontuhartzaileak, alkateak 2019 ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa dela eta sinatutako dekretuaren zehaztasunak azaltzen ditu:

#### **ALKATE-DEKRETUA: 27-2020**

#### **2019 EKITALDIKO LIKIDAZIOA**

Jesu Maria Ariznabarreta Zubero jaunak, Daniel Maeztu Perez idazkari / kontuhartzaile jaunaren, Arrankudiagako erakundearen 2019ko aurrekontuaren likidazioa eta hori osatzen duten agiriak ikusita, Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 49.3 artikulua ematen dizkidan eskumenak erabiliz, hauxe

#### **EBAZTEN DUT:**

**Lehenengoa.-** Arrankudiagako erakundearen 2019ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hauxe da likidazioaren laburpena:

	<b>2019</b>	<b>2018</b>
1.- Diruzaintzaren funts likidoak 12-31n	1.332.040,08	960.705,06
2.- Kobratu gabeko eskubideak 12-31n	366.875,70	351.510,68
- Aurrekontu arruntean:	102.979,39	73.223,65
- Aurrekontu itxietan:	231.777,54	246.317,71
- Aurrekontutik kanpoko eragiketetan:	32.118,77	31.969,32
3.- Ordaindu gabeko obligazioak 12-31n	256.330,45	268.362,58
- Aurrekontu arruntean:	96.941,22	111.344,11
- Aurrekontu itxietan:	15.645,86	15.645,48
- Aurrekontutik kanpoko eragiketetan:	143.743,37	141.372,99
4.- Aplikatu gabeko partidak:	53.092,07	53.992,07
- Aplikatu gabeko kobrantzak (-)		
- Aplikatu gabeko ordainketak (+)	53.092,07	53.992,07
5.- Diruzaintzako soberakina, guztira (1+2-3+4):	1.495.677,40	1.097.845,23
6.- Zalantzazko kobrantzako saldoak:	213.787,02	319.541,36
7.- Ukitutako finantzazioaren soberakina:	88.676,45	25.991,77
8.- Diruzaintzaren soberakina gastu orokorretarako (5-6-7):	1.193.213,93	752.312,10
9.- Indarreko aurrekontuaren aurrekontu-eragiketen emaitza:	397.832,17	98.645,02
10.- Aurreko ekitaldietan likidatu diren	0	-745,41

aurrekontuen eragiketen emaitza:		
11.- Doikuntzak	-58.052,68	110.148,61
- Diruzaintzaren soberakinarekin finantzatu diren obligazioak.	13.271,40	119.649,81
- Ekitaldiko finantzaketa-desbideratze negatiboak.	0	0
- Ekitaldiko finantzaketa-desbideratze positiboak. (-)	71.324,08	9.501,20
12.- Aurrekontuaren emaitza (9+10+11):	339.779,49	208.048,22

**Bigarrena.-** Likidazioaren espedientearen kopia bat Bizkaiko Foru Aldundiari bidaltzea, aipatutako foru arauaren 49.5 artikuluan xedatutakoa betez.

**Hirugarrena.-** Dekretu honen berri ematea Osoko Bilkurari egiten duen hurrengo bileran.

Josu Beaskoetxea jaunak (EAJ-PNV), galdetzen du zein da diferentzia aurrekontuaren emaitza eta geldikinen artean.

Udal idazkari-kontu-hartzaileak azaltzen dio; ekitaldiko aurrekontuaren emaitza, abenduaren 31ean ateratzen dan argazki finko bat dela. Hau da, ekitaldi hori ixterakoan emaitza islatzen dela. Beste aldetik, geldikinak, urte bateko egoera azertu beharrean, itxitako azken urtea eta aurreko guztien egoera ekonomikoa islatzen duela.

Beraz, Arrankudiagako udal batzak, 2019 ekitaldiko aurrekontuen likidazioaren kontu hartzen du.

**5. KREDITU GEHIGARRI BATEN BITARTEZ, 2020KO UDAL AURREKONTUEI, 2. KREDITU ALDARAZPENA ONARTZEA. HORRELA BADAGOKIO.**

**Aprobación, si procede, mediante Crédito Adicional, de la 2ª modificación al presupuesto municipal del ejercicio 2020.**

Idazkari-kontu-hartzaile jaunak azaltzen ditu zeintzuk dira proposatzen den kreditu aldarazpenaren zehaztasunak.

Zehazki, zeintzuk dira gastuen atalean, diruz hornitzen diren diru partidak eta zeintzuk dirusarreraren atalean dirua ematen duten partidak:

<b>Concepto</b>	<b>Denominación</b>	<b>Previsión</b>	<b>Previsión</b>	<b>Diferencia</b>
<b>Presupuesto</b>		<b>inicial</b>	<b>definitiva</b>	(Crédito Adicional)
<b>Gastos</b>				
1503 62200	Rehabilitacion Oxinburu	700.000	1.317.981,80	617.981,80
1503 22707	Estudios y trabajos técnicos	10.000	41.300	31.300
<b>TOTAL</b>		710.000	1.359.281,80	649.281,80

<b>Partida</b>	<b>Denominación</b>	<b>Previsión</b>	<b>Previsión</b>	<b>Diferencia</b>
<b>Presupuesto</b>		<b>Inicial</b>	<b>Definitiva</b>	(Crédito adicional)
<b>Ingresos</b>		(liquidación 2019)	(Tras esta modificación)	
<b>87001</b>	<b>R.L.T.para Generales</b>	<b>Gastos 1.158.021,59</b>	<b>595.692,64</b>	<b>562.328,95</b>
<b>87002</b>	<b>R.L.T para Gastos con financiación afectada</b>	<b>88.676,45</b>	<b>1.723,60</b>	<b>86.952,85</b>



<b>TOTAL</b>		<b>1.246.698,04 €</b>	<b>597.416,24</b>	<b>649.281,80</b>

Josu Beaskoetxea jaunak (EAJ-PNV) azaltzen du, bere udal taldeak proposamenaren kontra bozkatuko duela. Gai honen inguruan aurretik esan duten bezala, ez baitute ikusten inbertsio hau lehentasunezko izan behar dela, are gutxiago aurreikusten den dirua bideratuz. Era berean, galdetzen du proiektuaren bideragarritasun ekonomikoarengatik.

Alkate jaunak (EH Bildu), esaten dio momentuz ez dagoela. Behin eraikina egin ondoren aztertzen ari direla kudeaketa mota zein izango dan, baina momentuz hori ez dagoela zehaztua.

Puntua bozkatzen da eta 4 aldeko boto lortzen ditu (EH Bildu udal taldeko guztiak) eta beste 3 kontran. (EAJ-PNV udal taldeko kideena).

Ondorioz, Arrankudiagako Udal Batzak, 2020 ekitaldirako Aurrekontu Orokorraren dirusarrera eta gastuetan aldaketaren hasierako onarpena onartu du. Aldaketa hori, kreditu gehigarriaren bitartez egin da.

Aldaketa hori egiten da Arrankudiagako Oxinburu eraikina gizarte- eta kulturaerabilerarako birgaitzeko exekuzio-proiektuan jasotako obrak finantzatzen dituen partidari kreditu nahikoa emateko. Behin horien lizitazioa berrabiarazita eta esleipenari begira finantzaketa nahikoa izateko. Era berean, ezaugarri horiek dituen obra bati aurre egiteko, eraikuntzaren antolamenduari eta laneko segurtasun eta osasunari buruzko araudian oinarrituta, nahitaezkoa da obra zuzendaritza, exekuzio materialaren zuzendaritza eta laneko segurtasun eta osasunaren koordinazioa kontratatzea obra horiek irauten duten bitartean.

## **6. SINATUTAKO ALKATE DEKRETUEN KONTU EMATEA.**

### **Dación de cuentas de decretos de alcaldía firmados.**

Hurrengo alkate dekretuen kontu ematen da:

13-2020 Informazioa eskuratzea bide publikoen inbentarioaren inguruan.

14-2020 Udal langilearen kontratazioa.

15-2020 Udal langilearen kontratazioa.

16-2020 Bide publikoen erabilera okerrengeatik isuna.

- 17-2020 Euskara sustatzeko 2019 ikasturteko dirulaguntza.
- 18-2020 Abandonatutako kotxea hiri hondakina izendatzea.
- 19-2020 Uribarriko 3. Egikaritze Unitatearen urbanizazio proiektuaren hasierako onarpena.
- 20-2020 Uribarriko egikaritze-unitate 2ko 6B azpipartzelan eraikitako mugak egiaztatze eskaera
- 21-2020 Udal bideak erabiltzeko Udal-lizentziaren eskaera, Larunbeko bidetik BI-625 Foru errepidera mendiko egurra ateratzeko. Eskatzailea: Gestión Forestal Frias, S.L.
- 22-2020 Edukiontzia-gunerako hormigoizko babes-hesiak kontratatze prozesua.
- 23-2020 Edukiontzia-gunerako hormigoizko babes-hesiak kontratatze prozesuaren 22-2020 Dekretuaren akats zuzenketa.
- 24-2020 Basakoetxe auzoko bide publikoan segurtasun eta irisgarritasun hobekuntzak aztertzeko zerbitzu-kontratua.
- 25-2020 Zuloaga auzoan kotxe elektrikoak kargatzeko instalazioa jartzea.
- 26-2020 Abalaren itzultzelera, Zabaletik BI-625 foru errepidera udal bidea erabiltzeagatik.
- 27-2020 2019 ekitaldiaren likidazioa.
- 28-2020 Iberlanda udal-tabernan xilofagoen aurkako tratamendua aplikatzeko zerbitzu-kontratua.
- 29-2020 Arbide sapui industria-sektorea sailkapena aldatzeko arau subsidiarioen aldaketa puntualaren garapenari buruzko ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatua egiteko zerbitzu-kontratu txikia.
- 30-2020 Obra egiteko udal-lizentziaren eskaera, Zuloagan ibilgailu elektrikoak kargatzeko estazio bat instalatzeko.
- 31-2020 Nekazaritzako lanabesetarako eta egurra gordetzeko, txabola bat handitzeko obrak hirigintza legezkotasuna leheneratzea (Atxeta auzoa 23).
- 32-2020 Ustara auzoko 2 zenbakian dagoen etxebizitzan egiten ari diren obrak, indarrean dagoen araudira egokitzea.
- 33-2020 Arrankudiaga eta Zolloko Udalak animaliak (txakurrak eta katuak) jaso eta mantentzeko zerbitzua kontratatze prozesua.
- 34-2020 Udal langilearen kontratazioa.
- 35-2020 1-2020 kreditu aldarazpenaren hasierako onarpena.
- 36-2020 1-2020 kreditu aldarazpenaren behin betiko onarpena
- 37-2020 Obra egiteko udal lizentziaren eskaera, Ustara, 2 ezkerrean, familia bakarreko etxea barrutik eraberritzeko.

- 38-2020 Covid-19 birusak sortarazitako alarma egoera dela eta funtzesko zerbitzuen dekretua.
- 39-2020 Udal bideak erabiltzeko Udal-lizentziaren eskaera, Larunbeko bidetik BI-625 Foru errepidera mendiko egurra ateratzeko.
- 40-2020 Hiri hondakina izendatutako kotxea kentzeko agindua.
- 41-2020 Obra egiteko udal-lizentziaren eskaera, Poiu, 3an teilatua birgaitzeko.
- 42-2020 Obra egiteko udal-lizentziaren eskaera, Elexalde, 35ean teilatua birgaitzeko.
- 43-2020 Zolloko Eskolako etxebizitza publikoaren errentamenduaren fidantza itzulpena.
- 44-2020 Obra egiteko udal-lizentziaren eskaera, Uribarri, 8an fatxada birgaitzeko.
- 45-2020 Obra egiteko udal-lizentziaren eskaera, Iberlanda, 2an etxebizitzaren birgaitze integrala egiteko.
- 46-2020 Obra egiteko udal-lizentziaren eskaera, Bakiola industrialdeko 15. pabiloian, pabiloia birgaitzeko eta ur hartunea egokitzeko.
- 47-2020 Obra egiteko udal-lizentziaren eskaera, Uribarri 14an teilatua birgaitzeko eta espaloia konpontzeko.
- 48-2020 Obra egiteko udal-lizentziaren eskaera, Elexalde eta Otxanduri arteko kanalizazio elektrikoa aprobetxatzeko eta Otxanduriko bide publikoan zanga egiteko.
- 49-2020 Obra egiteko udal-lizentziaren eskaera, Aspiuntza 3an korta konpontzeko.
- 50-2020 Obra egiteko udal-lizentziaren eskaera, Zelaikoko UE1AZ partzelara linea elektrikoa eraikitzeko.
- 51-2020 Obra egiteko udal-lizentziaren eskaera, Aspiuntza 3an teilatua birgaitzeko.
- 52-2020 Udal langilearen kontratazioa.
- 53-2020 Udal langilearen kontratazioa.
- 54-2020 Udal energia plana egiteko zerbitzu-kontratua.
- 55-2020 2-2020 kreditu aldarazpenaren hasieraren onarpena.

Ane Miren Esparza andereak (EAJ-PNV) galdetzen du 24-2020 dekretuaren inguruan.

Alkate jaunak (EH Bildu) azaltzen dio, eskola garraioa dela eta, bertara, bertan bizi dan ume bat hartzera joan behar zen taxi gidailariak, lekua arriskutsua zela argudiatua ez zuela umea jasotzera pasatzen. Horrela gauzak eta Hezkuntza delegaritzarekin berba egin ondoren, erabaki da txosten tekniko bat eskatzea errepidearen egoeraren inguruan. Bertan beharrezkoak diren neurri zuzentzaileak jasoz.

Ane Miren Esparza andereak (EAJ-PNV) galdetzen du 28-2020 dekretuaren inguruan. Zehazki, jasotako aurrekontuen artean dauden diru kopuru ezberdintasunarengatik.

Alkate jaunak (EH Bildu) azaltzen dio, lan berdina eskatuz bi aurrekontu eskatu zirela eta horiek izan zirela diru kopuruak.

Ane Miren Esparza andereak (EAJ-PNV) galdetzen du 29-2020 Dekretuaren inguruan.

Idazkari jaunak azaltzen dio, Arbideko sektorean egin beharreko arau subsidiarioen aldaketa dela eta, beharrezkoa dela ingurumen azterketa. Diputazioa bidalitako ez dela nahiko izan. Diputazioak aldaketak egin behar direla ebatzi duela. Beraz, aldaketa eta hobekuntza batzuk sartzeko asmoarekin, bere garaian, sektore horretarako ingurumen txostena egin zuen enpresa berdina kontratatzea erabaki dela.

## **7. GALDERAK ETA ESKAERAK**

### **Ruegos y Preguntas.**

Josu Beaskoetxea jaunak (EAJ-PNV) galdetzen du, Covid 19 birusak eragindako egoera dela eta, ea udal gobernua Bakiolako enpresekin harremanetan jarri den, pairatzen ari diren egoera jakite aldera.

Alkate jaunak (EH Bildu) erantzuten dio, zehazki Bakiolako enpresekin ez direla harremanetan egon Covid-19 eragindako egoerarengatik. Bai hartu direla neurri zehatzak adibidez udal jabetza diren tabernekin. Era horretan, martxoaren erdia, apirila eta maiatzean ez zaie errentarik kobratuko.

Era berean, azaltzen du ere, Bakiolakoei, zergak eta tasak onartu zirenean, esan zitzaie, poligonoan birgaitze lanak eginez gero, kontuan hartuko dela obren zerga eta tasetan hobariak jasotzerako orduan. Era horretan, eskatu berri dute poligonoaren argiteria hobetzeko aurrekontua, eta aplikatuko zaie aipatutako hobariak.

Eta jorratzeko gai gehiagorik ez denez egon, Udalburuak amaiera eman dio bilkurari, 2020ko maiatzaren 12an, 09:30etan amaitu da. Akta hau alkateak sinatzen du; eta nik, Idazkariak, Fede ematen dut:

Y sin más asuntos que tratar, la presidencia da por finalizado el acto, siendo las 09:30 horas del 12 de mayo de 2020. La presente acta es firmada por el alcalde y por mí, el secretario que doy fe de ello.